| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK AUKERATU ETA PRESTATU | *1216 SELECCIÓN Y FORMACIÓN DEL PERSONAL DE ADMINISTRACIONES PÚBLICAS* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 43 IVAP | *43 IVAP* |
| HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA | *DIRECTORA DEL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA* |

| **HELBURUA** | ***OBJETIVO*** |
|---|---|
| 1. EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATEA ETA GAMA HOBETZEA | *1. MEJORA DE LA CALIDAD Y DE LA GAMA DE LOS SERVICIOS PRESTADOS* |
| 2. ERAKUNDEAREN KUDEAKETA HOBETZEA | *2. MEJORA DE LA GESTIÓN DEL INSTITUTO* |
| 3. AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOAK KUDEATZEA | *3. GESTIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS TECNOLÓGICAS* |
| 4. ADMINISTRAZIOARI ETA ZUZENBIDE PUBLIKOARI BURUZKO IRAKASLE-LANAK EGIN ETA ELKAR EZAGUTZEKO ETA SAKONTZEKO TOPAGUNEAK BULTZATZEA; EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEREZITASUNEI GARRANTZI BEREZIA EMANGO ZAIE | *4. DOCENCIA Y FOMENTO DE FOROS DE ENCUENTRO Y PROFUNDIZACIÓN EN RELACIÓN A LA ADMINISTRACIÓN Y EL DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN LAS PARTICULARIDADES DE LA C.A.P.V.* |
| 5. ZUZENBIDE PUBLIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO-ZIENTZIAREN BERRI EMAN | *5. DIFUSIÓN DEL DERECHO PÚBLICO Y DE LA CIENCIA DE LA ADMINISTRACIÓN* |
| 6. ADMINISTRAZIOAREN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN INGURUKO IKERKUNTZA BULTZATU, LANGILEEN KUDEAKETA INTEGRALA AZTERTZEARI GARRANTZI BEREZIA EMANDA | *6. FOMENTO DE LA INVESTIGACIÓN EN ADMINISTRACIÓN Y DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN EL ESTUDIO DE LA GESTIÓN INTEGRAL DE RECURSOS HUMANOS* |
| 7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOEN JARDUNA HOBETU | *7. MEJORA DEL FUNCIONAMIENTO DE LAS DISTINTAS ADMINISTRACIONES DE LA C.A.P.V.* |
| 8. FUNTZIONARIOEN, PROFESIONALEN ETA GRADUATU-ONDOKOEN PRESTAKUNTZA, HIRIGINTZA, LURRALDE-ANTOLAMENDU ETA INGURUMENAREN ARLOETAN | *8. FORMACIÓN, EN MATERIA URBANÍSTICA, DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTAL DE PERSONAL FUNCIONARIO, PROFESIONALES Y POSTGRADUADOS/AS* |
| 9. HIRIGINTZA, LURRALDE-ANTOLAMENDU ETA INGURUMENAREN BERRI ZABALTZEA | *9. DIFUSIÓN DEL URBANISMO, LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y EL MEDIO AMBIENTE* |
| 10. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO LANGILEAK HAUTATZEA | *10. SELECCIÓN DE PERSONAL PARA LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA EN LA C.A.P.V.* |
| 11. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA | *11. FORMACIÓN DESTINADA AL PERSONAL QUE PRESTA SUS SERVICIOS EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA C.A.P.V.* |
| 12. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | *12. FORMACIÓN PARA EL EMPLEO DE PERSONAL DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS* |

## BETETZE MAILA

1. EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATEA ETA GAMA HOBETZEA

IVAPek bezero zuzenaren gogobetetasuna neurtzen du hainbat zerbitzutan, hala nola prestakuntzan (euskararen berariazko prestakuntza, prestakuntza orokorra eta Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolarena), Elebi, Dudanet, Administrazioa euskaraz eta Dokumentazio zentroan. 2021ean Idazlagun zerbitzuaren erabiltzaileei eta hizkuntza-eskakizunen ohiko deialdietan parte hartzen dutenei galdetegia jarri zaie martxan.

Bezero instituzionalei dagokienez (udalak, aldundiak, erakunde publikoak eta Eusko Jaurlaritza), IVAPek 2021ean abiarazi du administrazio horien beharrak ezagutzeko prozesua, bai eta erakundeak jasotako zerbitzu eta produktuei dagokienez duten gogobetetze-maila ezagutzekoa ere.

2021ean ere, IVAPek institutuko langileen gogobetetzeari buruzko inkesta egin du, barne-bezero gisa, hau da, erakunde autonomoaren zenbait zerbitzuren hartzaile gisa.

Binomioen mapa tresna bat da, IVAPek eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio garrantzitsua biltzen duena (teletramitazioa, gogobetetze-maila…), eta urtero berrikusten eta eguneratzen duena.

2. ERAKUNDEAREN KUDEAKETA HOBETZEA

2021ean, IVAPek 2020ko Kudeaketa Plana ebaluatu du eta 2021ekoari dagokiona idatzi eta gauzatu du.

Urtero bezala, gardentasunaren adibide da Jardueren Oroitza argitaratzea. Liburua erakundearen interes-taldeei banatu zaie eta, halaber, eskuragarri dago institutuaren webgunean.

Kudeaketa aurreratuarekiko konpromisoak zerbitzu-kartak bi urtean behin ebaluatzea eskatzen du. Azken ekitaldian, arrakastaz ebaluatu dira Prestakuntza zerbitzuarena eta Dokumentazio-zentroarena.

Kudeaketa aurreratuari buruzko jardueretan parte hartzeari dagokionez, IVAPeko ebaluatzaileek Aurrerabiderekin, Euskalitekin eta Q-epearekin lankidetzan jardun dute kanpo-ebaluazioak, kontrasteak eta zerbitzu-kartak ebaluatuz. Era berean, hainbat enplegu publikoko foroetan eta biltzarretan hartu du parte, EAEn, Andaluzian eta Estatuan.

Gainera, IVAPek praktika egokien saioak antolatzen ditu urtero institutuko pertsonentzat. 2021ean 92 pertsonak parte hartu dute egin diren hiru saioetan (eXelearning, Nominak ulertzeko saioa eta Draw: fluxudiagramak egiteko tresna).

IVAPen ezagutza kritikoen mapa eguneratu da.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. MEJORA DE LA CALIDAD Y DE LA GAMA DE LOS SERVICIOS PRESTADOS*

*El IVAP mide la satisfacción del cliente directo en servicios tales como la formación (la específica de euskera, la general y la de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos), Elebi, Dudanet, Administrazioa euskaraz y Centro de Documentación. En 2021 se ha puesto en marcha el cuestionario a las personas usuarias de Idazlagun y a las participantes en las convocatorias ordinarias de perfiles lingüísticos.*

*En cuanto al cliente institucional (ayuntamientos, diputaciones, organismos públicos y Gobierno Vasco), en 2021 el IVAP ha iniciado el proceso para conocer las necesidades de dichas administraciones y su nivel de satisfacción con respecto a los servicios y productos recibidos por el instituto.*

*También en 2021, el IVAP ha realizado la encuesta de satisfacción del personal del instituto, en tanto cliente interno, es decir, como receptor de ciertos servicios del organismo autónomo.*

*El mapa de binomios es una herramienta que recoge información relevante sobre los servicios ofrecidos por el IVAP (teletramitación, medición de satisfacción…) y que revisa y actualiza anualmente.*

*2. MEJORA DE LA GESTIÓN DEL INSTITUTO*

*En 2021, el IVAP ha evaluado el Plan de Gestión del 2020 y ha redactado y ejecutado el correspondiente a 2021.*

*Un año más, el IVAP ha publicado la Memoria de Actividad, ejemplo de transparencia del organismo público. La publicación se distribuye anualmente a los grupos de interés y, además, está disponible en la página web.*

*El compromiso con la gestión avanzada exige la evaluación, cada dos años, de las cartas de servicios. En el último ejercicio, se ha superado con éxito la evaluación externa de las cartas de servicios de los servicios de Formación y del Centro de Documentación.*

*En cuanto a la participación en actividades sobre gestión avanzada, personas evaluadoras del IVAP han colaborado con Aurrerabide, con Euskalit y con Q-epea en la realización de evaluaciones externas, contrastes y cartas de servicios. Igualmente, se ha participado en foros de empleo público y en congresos en la CAPV, en Andalucía y a nivel estatal.*

*Además, el IVAP organiza anualmente sesiones de buenas prácticas para las personas del instituto. En 2021 han participado 92 personas en las tres sesiones que se han llevado a cabo (eXelearning, Nominak ulertzeko saioa y Draw: fluxudiagramak egiteko tresna).*

*Se ha actualizado el mapa de conocimientos críticos del IVAP.*

2021ean, IVAPeko Berdintasun Unitatea osatu da, berdintasun-teknikariaren plaza bat sortuz. Terminologia arloa zerbitzu bihurtu da, eta bi teknikari gehiago sartu dira.

*En 2021, se ha implantado la unidad de Igualdad del IVAP con la creación de una plaza de técnica de Igualdad. El área de Terminología se ha convertido en servicio y ha incorporado a dos personas técnicas en la materia.*

Urtero bezala, IVAPeko erakunde aliatuekin jarraipen-bilerak egin dira: Ejie, Eudel eta Euskalit.

*Anualmente, el IVAP hace reuniones de seguimiento con las organizaciones aliadas del instituto (Ejie, Eudel y Euskalit).*

3. AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOAK KUDEATZEA

*3. GESTIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS TECNOLÓGICAS*

IVAPeko ekipamendu informatiko guztiak mantendu edo eguneratu dira. Era berean, multimedia gailuak berritu dira IVAPeko gela eta ikasgeletan.

*Todos los equipos informáticos del IVAP se han mantenido y/o actualizado. Así mismo se han renovado dispositivos multimedia en las salas y aulas del IVAP.*

IVAPeko 20 aplikazioak mantendu eta eguneratu ditugu. Beharrezko eguneraketa tekniko eta teknologikoak egin ditugu, eta funtzionalitate berri batzuk ere sartu ditugu, kudeaketa-premiei erantzutearren.

*Se han mantenido y actualizado las 20 aplicaciones del IVAP, con las actualizaciones técnicas y tecnológicas necesarias, además de incorporar nuevas funcionalidades para satisfacer las necesidades de gestión.*

Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa Eusko Legebiltzarraren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Eusko Legebiltzarraren, Arabako Batzar Nagusien eta Arabako suhiltzaileen esku jarri da, prozesu horiek egiteko, euskarri informatiko guztia emanez.

*Se ha puesto a disposición del Parlamento Vasco, Academia Vasca de Policía y Emergencias, , Parlamento Vasco, Juntas Generales de Álava y Bomberas y Bomberos Forales de Álava, la aplicación de gestión de procesos selectivos, para la realización de los mismos, dando todo el soporte informático.*

Gailu mugikorretarako (app) aplikazio berri bat jarri da martxan, HAEEk web orrian argitaratzen dituen berriak harpidetza egiteko. Horrela, interesdunak jakinarazpen bat jasoko du automatikoki, berritasunak argitaratzen direnean.

*Se ha puesto en producción una nueva aplicación para dispositivos móviles (app), de suscripción a las novedades que el IVAP publica en la página web, de forma que la persona interesada recibirá una notificación de forma automática, cuando se publiquen las novedades.*

UDA ingurune teknologikora migratzen jarraitu da, hala Se eskatzen duten aplikazioetara.

*Se ha continuado migrando al entorno tecnológico UDA, las aplicaciones que lo requieren.*

Funtzionalitate berri bat gehitu zaio itzultzaile neuronal juridiko-administratiboari, hobekuntza-proposamenak jasotzeko, sistema neuronalaren motorraren funtzionamendua optimizatzeko.

*Se ha incorporado al traductor neuronal, jurídico-administrativo, una nueva funcionalidad para recepcionar las propuestas de mejora, con el objeto de optimizar el funcionamiento del motor del sistema neuronal.*

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren eta ingurumenaren arloan eskaintzen dituen ikastaro monografikoetarako herritarren eskaera digitalizatu da.

*Se ha digitalizado la solicitud de la ciudadanía a cursos monográficos, en ámbito de la ordenación del territorio, el urbanismo y el medio ambiente que oferta la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU).*

4. ADMINISTRAZIOARI ETA ZUZENBIDE PUBLIKOARI BURUZKO IRAKASLE-LANAK EGIN ETA ELKAR EZAGUTZEKO ETA SAKONTZEKO TOPAGUNEAK BULTZATZEA; EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEREZITASUNEI GARRANTZI BEREZIA EMANGO ZAIE

*4. DOCENCIA Y FOMENTO DE FOROS DE ENCUENTRO Y PROFUNDIZACIÓN EN RELACIÓN A LA ADMINISTRACIÓN Y EL DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN LAS PARTICULARIDADES DE LA C.A.P.V.*

Zenbait jardunaldi eta mintegi programatu dira. Haietan, oraintsuko lege-proiektuen xede diren gaiak aztertu dira bereziki, baina bai eta beste eremu batzuk ere, esaterako, toki-administrazioa, funtzio publikoa, edo gure antolamendu juridiko-politikoaren berezitasunak. Ekitaldi horiek guztiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatu ditu, batzuk bakarka eta beste batzuk, aldiz, izaera zientifikoko beste erakunde batzuekin lankidetzan.

*Se han programado varias jornadas y seminarios, incidiendo especialmente en las materias objeto de proyectos legislativos recientes, y otros ámbitos, tales como Administración Local, función pública, o, particularidades de nuestra configuración jurídico-política, todos ellos organizados por el propio Instituto Vasco de Administración Pública, o por el propio Instituto en colaboración con otras entidades de carácter científico.*

Osasun-egoera dela eta, jardunaldi horiek 2021ean baino ez dira egin:

*Debido a la situación sanitaria únicamente se han desarrollado estas jornadas en el año 2021:*

"Konstituzioaren eraldaketa eta erreforma. Erronkak eta mugak".

5. ZUZENBIDE PUBLIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO-ZIENTZIAREN BERRI EMAN

-Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkarien hiru hilez behingo aleak argitaratu dira, baita Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria ere. Orobat, zuzenbide publikoaren eta administrazio-zientziaren arloko zenbait argitalpen kaleratu dira; batez ere arlo hauetakoak: hizkuntza-normalkuntza, administrazio-hizkera, Europako erakundeak, ingurumena, zuzenbide konstituzionala, zuzenbide autonomikoa…

-2021ean argitaratutako liburuak ondoko hauek dira:

- IVAP: Jardueren oroitza 2020 / Memoria de actividad 2020.

- Maribel González Pascual: Las salvaguardas de la autonomía política ante las crisis. (De la crisis del euro a la crisis del coronavirus).

- Hainbat egile (Koordinatzaileak: Armin von Bogdandy, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, Daniel Sarmiento Rodríguez-Escudero eta Mariela Morales Antoniazzi): El futuro de la Unión Europea. Retos y desafíos.

- Hainbat egile (Zuzendariak: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena eta Alejandro Saiz Arnaiz): ¿Está en peligro el Estado de Derecho en la Unión Europea?

- Xabier Irujo Ametzaga eta Alberto Irigoyen Arteche: La hora vasca de Venezuela. La administración del gobierno de Euskadi y el exilio político vasco de Caracas (1939-1979)

- Mikel Tomás Fidalgo Astigarraga: Euskal zuzenbide zibilari dagokion zuzenbide prozesala: lege data eta lege ferenda azterketa.

- Begoña Pérez de Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdia eta Luis María Rousse Arroita: La erosión silenciosa.

- Begoña Pérez de Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdia eta Luis María Rousse Arroita: Higadura isila.

- Iñaki Galdeano Larizgoitia: Manual de haciendas locales de Euskadi.

- Etika Publikorako Batzordea / Comisión de Ética Pública: Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria 2018-2020 / Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2018-2020.

- IVAP: Temario de administrativos del Gobierno Vasco

- IVAP: Temario de auxiliares administrativos del Gobierno Vasco

- IVAP: Temario de subalternos del Gobierno Vasco

- IVAP: Temario general del Gobierno Vasco

*"Transformación y reforma constitucional. Desafíos y límites".*

*5. DIFUSIÓN DEL DERECHO PÚBLICO Y DE LA CIENCIA DE LA ADMINISTRACIÓN*

*-Se han editado los nuevos números trimestrales de la Revista Vasca de Administración Pública, así como la Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas. Asimismo, se han editado diversas publicaciones del ámbito del Derecho Público y la Ciencia de la Administración, especialmente referidas a normalización lingüística, lenguaje administrativo, Instituciones Europeas, medio ambiente, derecho constitucional, derecho autonómico...*

*-Los libros publicados en 2021 son los siguientes:*

*- IVAP: Jardueren oroitza 2020 / Memoria de actividad 2020.*

*- Maribel González Pascual: Las salvaguardas de la autonomía política ante las crisis. (De la crisis del euro a la crisis del coronavirus).*

*- AA.VV. (Coordinadores: Armin von Bogdandy, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, Daniel Sarmiento Rodríguez-Escudero y Mariela Morales Antoniazzi): El futuro de la Unión Europea. Retos y desafíos.*

*- AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena y Alejandro Saiz Arnaiz): ¿Está en peligro el Estado de Derecho en la Unión Europea?*

*- Xabier Irujo Ametzaga y Alberto Irigoyen Arteche: La hora vasca de Venezuela. La administración del gobierno de Euskadi y el exilio político vasco de Caracas (1939-1979)*

*- Mikel Tomás Fidalgo Astigarraga: Euskal zuzenbide zibilari dagokion zuzenbide prozesala: lege data eta lege ferenda azterketa.*

*- Begoña Pérez de Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdia y Luis María Rousse Arroita: La erosión silenciosa.*

*- Begoña Pérez de Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdia y Luis María Rousse Arroita: Higadura isila.*

*- Iñaki Galdeano Larizgoitia: Manual de haciendas locales de Euskadi.*

*- Etika Publikorako Batzordea / Comisión de Ética Pública: Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria 2018-2020 / Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2018-2020.*

*- IVAP: Temario de administrativos del Gobierno Vasco*

*- IVAP: Temario de auxiliares administrativos del Gobierno Vasco*

*- IVAP: Temario de subalternos del Gobierno Vasco*

*- IVAP: Temario general del Gobierno Vasco*

- IVAP: Eusko Jaurlaritzako administrarien gaitegia
- IVAP: Eusko Jaurlaritzako administrari laguntzaileen gaitegia
- IVAP: Eusko Jaurlaritzako menpekoen gaitegia
- IVAP: Eusko Jaurlaritzako gaitegi orokorra
- José Ignacio Tejerina y Álvaro Cerezo Ibarrondo: Código Urbanístico (Euskadi 2021)

*- IVAP: Eusko Jaurlaritzako administrarien gaitegia*

*- IVAP: Eusko Jaurlaritzako administrari laguntzaileen gaitegia*

*- IVAP: Eusko Jaurlaritzako menpekoen gaitegia*

*- IVAP: Eusko Jaurlaritzako gaitegi orokorra*

*- José Ignacio Tejerina y Álvaro Cerezo Ibarrondo: Código Urbanístico (Euskadi 2021)*

6. ADMINISTRAZIOAREN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN INGURUKO IKERKUNTZA BULTZATU, LANGILEEN KUDEAKETA INTEGRALA AZTERTZEARI GARRANTZI BEREZIA EMANDA

Herri-administrazioarekin intereseko eta gaurkotasunekoak diren gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren 2020-2021 ikasturteko bi laguntzen deialdia, garapena eta jarraipena egin da. Horri esker, hainbat jatorritako ikertzaile eta profesionalek aukera izan dute herri-administrazioaren arloaren barruan interesatzen zaizkien eta gaurkotasun zientifikokoak diren gaiak jorratzeko; laguntzen epea amaitutakoan aurkeztutako lanean gauzatu dira ikerketa horiek.

Bi laguntzak ikerketa taldearen modalitatean esleitu ziren.

Ekitaldi honetan (2020-2021), arestian aipatutako laguntzen bidez bi ikerketa entregatu dira eta honako eremu hauek izan dituzte ikergai: Espainiako eta Europako ordenamendu juridikoaren diziplina anitzeko azterketa Istanbulgo Hitzarmenaren argitan; Euskadin generoarekiko sentikorrak diren parlamentuak: Eusko Legebiltzarra eta Batzar Nagusiak.

Ikerketetako lehenengoak 9,5 puntuko kalifikazioa lortu zuen Balorazio Batzordeak egindako analisian, beraz, bigarren ordainketa egin zen.

Ikerketetako bigarrenak 5,0 puntuko kalifikazioa lortu zuen Balorazio Batzordeak egindako analisian, beraz, bigarren ordainketa ez zen egin.

2021-2022 ikasturtean, herri-administrazioarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren bi laguntza emateko deialdia egin da. Bi laguntzak ikerketa taldearen modalitatekoak dira, eta biak esleitu dira.

“Jesús Mª Leizaola - 2021” saririko deia egin da; sariaren helburua da ikertzaileek edo ikertalde espezializatuek beren ikerlanak askatasun osoz azter ditzaten bultzatzea eta ikerlan horiek ezagutaraztea. Ikerlan horien xedea izan behar da euskal autonomia, euskal autogobernua eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.

*6. FOMENTO DE LA INVESTIGACIÓN EN ADMINISTRACIÓN Y DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN EL ESTUDIO DE LA GESTIÓN INTEGRAL DE RECURSOS HUMANOS*

*Durante el curso 2020-2021 se han convocado, desarrollado y realizado el seguimiento de dos ayudas a la realización de investigaciones en materias de interés y actualidad en relación con la Administración Pública, posibilitando el que investigadores y profesionales de distintas procedencias se ocupen de temas de interés y actualidad científica en el ámbito de la Administración Pública, y el que se logre la materialización de tales investigaciones en la presentación de un trabajo final.*

*Las dos ayudas se adjudicaron en la modalidad de equipo de investigación.*

*En este ejercicio 2020-2021 se han entregado dos investigaciones mediante estas ayudas, investigaciones dirigidas a los siguientes ámbitos: análisis multidisciplinar del ordenamiento jurídico español y europeo a la luz del Convenio de Estambul; parlamentos sensibles al género en Euskadi: Parlamento Vasco y Juntas Generales.*

*La primera de las investigaciones obtuvo una calificación de 9,5 puntos por parte de la Comisión de Valoración, por lo que se efectuó el segundo pago de la ayuda.*

*La segunda de las investigaciones obtuvo una calificación de 5,0 puntos por parte de la Comisión de Valoración, por lo que no se efectuó el segundo pago de la ayuda.*

*Durante el curso 2021-2022 se han convocado dos ayudas destinadas al fomento de la investigación sobre temas relacionados con la Administración Pública. Las dos se han convocado y adjudicado en la modalidad de equipo de investigación.*

*Se ha convocado el Premio “Jesús Mª de Leizaola”-2021 para posibilitar el propósito de estimular y dar a conocer los esfuerzos de investigadores o equipos cualificados que, con absoluta libertad de enfoque, encaucen sus estudios hacia temas cuyo objeto se refiera a la autonomía vasca, al autogobierno vasco, a la organización territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y/o a la gobernanza pública ante los retos de la globalización, de la transformación digital, del cambio climático, o de otros retos que incidan en el desarrollo de las políticas públicas del siglo XXI.*

Saria José Ramón Bengoetxea Caballero jaunak aurkeztutako "Diálogos judiciales y autogobierno. Estudio socio-jurídico sobre un epifenómeno de la justicia en Euskadi, en España y en Europa" lanari eman zaio, eta akzesita Aizbea Atela Uriarte andreak aurkeztutako "El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: la Ley de Instituciones Locales de Euskadi" lanari eman zaio.

*El premio ha sido concedido a Don José Ramón Bengoetxea Caballero por su trabajo titulado "Diálogos judiciales y autogobierno. Estudio socio-jurídico sobre un epifenómeno de la justicia en Euskadi, en España y en Europa", mientras el accésit ha sido concedido a Doña Aizbea Atela Uriarte por su trabajo titulado "El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: la Ley de Instituciones Locales de Euskadi".*

7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOEN JARDUNA HOBETU

*7. MEJORA DEL FUNCIONAMIENTO DE LAS DISTINTAS ADMINISTRACIONES DE LA C.A.P.V.*

Maila eta lurralde historiko guztietako administrazioek egindako aholkularitza-eskariei erantzuteko, hainbat txosten idatzi dira, eta telefono bidezko kontsulta asko erantzun dira. Eskariak, orokorrean, ondokoei buruzkoak izan dira: administrazio-antolamenduari buruzko gaiak eta herri-administrazioaren jarduna, hizkuntza-normalkuntza, funtzio publikoa, zerbitzu publikoen kudeaketa, ondasun publikoak eta administrazioaren kontratazioa.

*Se han elaborado diversos informes escritos, y atendido numerosas consultas telefónicas, en respuesta a solicitudes de asesoramiento de las Administraciones de los distintos niveles y Territorios Históricos, en relación, fundamentalmente, con las materias de organización administrativa y funcionamiento de la Administración Pública, normalización lingüística, función pública, gestión de servicios públicos, bienes públicos y contratación administrativa.*

8. FUNTZIONARIOEN, PROFESIONALEN ETA GRADUATU-ONDOKOEN PRESTAKUNTZA, HIRIGINTZA, LURRALDE-ANTOLAMENDU ETA INGURUMENAREN ARLOETAN

*8. FORMACIÓN, EN MATERIA URBANÍSTICA, DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTAL DE PERSONAL FUNCIONARIO, PROFESIONALES Y POSTGRADUADOS/AS*

"Urbanismo y Estudios Territoriales" modulu bidezko ikastaroa antolatu da, ikasturteari dagokiona eta 700 ikastordukoa horrela osatua: 6 modulu, eta Hirigintzako goi-mailako ikastaroa eta 300 orduko aukerako praktikak. Sei eskola-moduluak gainditu eta "Hirigintzako goi-mailako ikastaroa" egin ondoren, "Hirigintzako Diploma" ematen da.

*Se ha organizado el curso modular "Curso de Urbanismo y Estudios Territoriales" de 700 horas, que se corresponde con un curso escolar, y está formado por 6 módulos, prácticas optativas (300 horas) y la realización del Curso Superior de Urbanismo. Tras la superación de los seis módulos lectivos y el "Curso Superior de Urbanismo" se otorga el "Diploma en Urbanismo".*

2020-2021 ikasturtean modulu bidezko "XLVI (46) Curso de Urbanismo y Estudios Territoriales" izeneko prestakuntza-ekintza egin da: Guztira, 153 ikasle matrikulatu dira modulu guztietan eta 21 Hirigintzako diploma eman dira.

*Durante el curso 2020-2021 ha finalizado el "XLVI (46) Curso de Urbanismo y Estudios Territoriales" (2020-2021). El citado curso ha tenido 153 matrículas a lo largo de los seis módulos y se han otorgado 21 diplomas en Urbanismo.*

Ikastaroa egiteko bi beka esleitu dira. Bekadun izandako bi ikasleek lortu dute diploma.

*. Se han concedido dos becas para realizar el curso. Las dos personas beneficiarias de beca han obtenido el diploma.*

(2020-21) XLVI ikastaro honen barruan, 2021an 740 orduko prestakuntza ekintza modularrak egin dira, 93 matrikulekin: 464 ordu Bilbon, 69 matrikulekin eta 276 ordu Donostian, 24 matrikulekin. Lau modulu izan dira, III,IV,V eta VI.

*Dentro de este curso XLVI (2020-21), en el año 2021 se han realizado 740 horas de actividades formativas modulares con 93 matrículas: 464 horas en Bilbao con 69 matrículas y 276 horas en Donostia-San Sebastián con 24 matrículas. Se corresponden a los módulos III, IV, V y VI.*

2021-2022 ikasturtean , "XLVI (46) Curso de Estudios Territoriales y Urbanos" (2020-2021), 700 ikastordu, egiten ari da. 2020an 350 orduko prestakuntza ekintza modularrak egin dira, lehenengo hiru moduluak, 72 matrikulekin.

*Durante el curso 2021-2022 se ha convocado y se está realizando el "XLVII (47) Curso de Estudios Territoriales y Urbanos" (2021-2022) de 700 horas de duración. Durante 2021 se han realizado 350 horas de actividades formativas modulares, los tres primeros módulos, con 72 matrículas.*

2021ean prestakuntza ekintza modularren orduak guztira: 1.090 ordu

*Total horas de actividades formativas modulares en el 2021: 1.090 horas*

2021ean prestakuntza ekintza modularren matrikulak guztira: 165

*Total número de matrículas en las actividades formativas modulares del 2021: 165*

"XLVI (46) Curso de Urbanismo y Estudios Territoriales" izeneko ikastarorako 5 matrikula-bekatarako deialdia egin da, eta 2 esleitu dira.

*Se han convocado 5 becas de matrícula para el curso modular XLVI (46) Curso de Urbanismo y Estudios Territoriales" (2020-2021).y se han adjudicado 2 de ellas.*

Erakunde edo enpresetako praktikaldia antolatu eta garatu da-300ordu- Hirigintzako XLVI. (46). Ikastaroetako Ikasleentzat (2020-2021). Praktikak 6 ikasleri esleitu zaizkie, guztiok arkitektura ikasketekin. Praktikak honako udal hauetan izan dira: Durango, Bilbao, Orduña, Arrasate, Amezketa eta Estudio de Renovación y Desarrollos Urbanos SL.

*Se han organizado y desarrollado las prácticas en instituciones y/o empresas con una duración de 300 horas para el alumnado del XLVI (46) Curso de Urbanismo (2020-2021). Las prácticas optativas se han adjudicado a 6 personas, todas con la titulación de arquitectura. Las prácticas se han realizado en los ayuntamientos de Durango, Bilbao, Orduña, Arrasate, Amezketa y en el Estudio de Renovación y Desarrollos Urbanso SL.*

2021ean, hamabi prestakuntza-jarduera espezilizatu antolatu, kudeatu eta garatu dira, hirigintzan, etxebizitza edo ingurumenanari buruzkoak. Prestakuntza-jarduera hauek enplegatu publikoentzat eta profesionalentzat izan dira. Guztira, 269 matrikula eta 267,5 ordu. Haietako bi bikoiztu egin dira.

*Se han organización, gestionado y desarrollado durante 2021 de doce actividades formativas especializadas sobre urbanismo, vivienda o medio ambiente para empleados y empleadas públicas y profesionales con un total de 269 matrículas y 267,5 horas. Dos de ellas se han duplicado.*

“Hirigintza ikastaroa” euskaraz antolatu, kudeatu eta garatu egin da.

*Se ha organizado, gestionado y desarrollado el curso “Hirigintza ikastaroa” en euskera.*

2021ean zehar ikasle kopurua, guztira, 434 izan da, horietako %66 emakume (Ikastaro modularretan %61 eta prestakuntza-jarduera espezializatuetan %70 )

*El número total de alumnado en formación ha sido de 434, un 66% mujeres (en los cursos modulares de urbanismo un 61% y en las actividades formativas especializadas un 70%).*

Prestakuntza-jarduera guztien eskaerak egiteko tramitazio elektronikoa ezarri da.

*Se ha implementado la tramitación electrónica para presentar las solicitudes en todas las actividades formativas.*

Prestakuntza-jarduera batzuk bideokonferentzietarako den Zoom plataforma bidez egin dira.

*Se han impartido varias actividades formativas a través de la plataforma para videoconferencias Zoom.*

Aurrez-aurreko prestakuntza jarduera batzuetan Zoom plataforma erabili da jarduerak kudeatzeko tresna berri gisa.

*Se ha utilizado la plataforma Zoom en cursos presenciales como otra herramienta más para la gestión de los mismos.*

Izandako matrikula guztien %95,89 aprobetxamendu-ziurtagiri eman dira, helburuak noraino bete diren zehaztuta daukaten ikastaro eta jarduеretan.

- -Ikastaro modularretan %98,79
- -Prestakuntza-jarduera espezializatuetan %93

*Se han concedido un 95,89% de certificados de aprovechamiento sobre el total de matrículas en cursos y actividades formativas con logro de objetivos.*

- *-En los cursos modulares de urbanismo un 98,79%.*
- *-En las actividades formativas especializadas un 93%*

## 9. HIRIGINTZA, LURRALDE-ANTOLAMENDU ETA INGURUMENAREN BERRI ZABALTZEA

## *9. DIFUSIÓN DEL URBANISMO, LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y EL MEDIO AMBIENTE*

Araudi berria zabaltzeko ikastaro eta jardunaldiak antolatu dira.

*Se han organizado jornadas y cursos para difundir novedades normativas.*

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak argitaratutako liburuen difusioa eta banaketa egin da.

*Se han difundido y entregado los libros publicados por el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.*

Prestakuntza-jarduera guztietan hirigintza eta ingurumenean espezializatutako IVAPeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa aurkeztu egin da, baita aldiro ateratako Hirigintza eta ingurumen arloko boletina ere.

*En todas las actividades formativas se ha hecho una presentación de la Biblioteca y del Centro de Documentación del IVAP y sus servicios, especializados en urbanismo y medio ambiente, así como del boletín de urbanismo y medio ambiente, elaborado de forma periódica.*

Liburutegiko eta Dokumentazio Zentruko zerbitzua

- -21 kontsulta erantzun dira.
- -273 artikulu bidali zaie erabiltzaileei.
- -70 liburu mailegatu dira.
- -8 Hirigintza eta ingurumen arloko boletin egin, argitaratu eta zabaldu dira.

*Servicios de Biblioteca y Centro de Documentación.*

- *-Se han contestado 21 consultas.*
- *-Se han enviado 273 artículos a las personas usuarias*
- *-Se han prestado 70 libros.*
- *-Se han elaborado, publicado y difundido 8 boletines de urbanismo y medio ambiente.*

-Erabiltzaileen esku jarri dira Hirigintza eta ingurumen arloko hainbat monografia berri, baita aldizkari espezializatuen funtsa ere.

“Código urbanístico” liburua egin da baina ez da 2021ean argitaratu urte amaierako azken araudia sartu ahal izateko.

*-Se ha puesto a disposición de las personas usuarias nuevas monografías sobre Urbanismo y Medio Ambiente, además del fondo de revistas especializadas.*

*Se ha elaborado el “Código urbanístico” pero no se ha publicado en el 2021 para poder incluir una nueva ley aprobada a finales de año.*

## 10. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO LANGILEAK HAUTATZEA

2021ean hautaketa-prozesu bat kudeatu dugu: Goi Mailako Teknikarien Kidegoa, Albaitaritzan lizentziatua aukeraren lan-poltsa (Hiltegiko teknikaria).

EAEko administrazio publikoek deitutako karrerako funtzionarioak hautatzeko 207 prozesu epaitzeko ardura duten epaimahai kalifikatzaileetako 590 ordezkari izendatu eta horien jarraipena egin da.

Toki eta Foru Administrazioetako 69 entitateekin 290 elkarlan egin ditugu, 2020an haiek deitutako 133 hautaketa-prozesu kudeatzeko eta aholkatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko (1.148 lanpostu) hautaketa-prozesuetan lankidetzan aritu gara Hezkuntza Sailarekin.

Otsailean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsei buruzko araudi berriaren ondorioz, 2021ean 17 prozesu egin dira lanpostuak aldi baterako betetzeko, Lan-eskaintzak Atarian bidez.

## *10. SELECCIÓN DE PERSONAL PARA LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA EN LA C.A.P.V.*

*En 2021 se gestionó un proceso selectivo de ampliación de la bolsa del Cuerpo Superior Facultativo, Opción licenciatura en Veterinaria (Técnicos-as de matadero).*

*Se ha realizado la designación y seguimiento de 590 representantes en los Tribunales Calificadores encargados de juzgar 207 procesos convocados por las administraciones vascas, destinados a seleccionar funcionarios/as de carrera.*

*Se han realizado 290 colaboraciones con 69 entidades de la Administración Local y Foral en la gestión y asesoramiento de 133 procesos selectivos.*

*Se ha colaborado en la gestión de los procesos selectivos para el ingreso y acceso al Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, de ingreso al Cuerpo de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional y procedimiento de adquisición de nuevas especialidades por el personal funcionario de los citados Cuerpos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el Departamento de Educación (1.148 plazas).*

*Como consecuencia de la nueva normativa de Bolsas del Gobierno Vasco, que entró en vigor en febrero, en 2021 se han realizado 17 procesos para la provisión temporal de puestos de trabajo mediante Ofertas de Empleo en el Portal.*

## 11. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA

